

2016-2017
IKASTURTEA

ERRI  **GORA** *Go*



Badator ikasturte berria. Ikasturte berezia. Ikasturte garrantzitsua. Errigoraren fase berri bati hasiera emango dion ikasturtea.

Orain hiru urte Errigorak izena baino ez zeukan. Izena eta amets mordoa. Hiru urte beranduago, badugu izana eman digun ibilbide oparoa ere. Badugu ekimenaren inguruan elkartu den ekoizle familia anitzaren konpromisoa, ehunka herritan komunitateka trinkotzen ari diren milaka kontsumitzaile arduratsuren babesia eta arnasa ematen digun auzolangileen sare zabalaren taupada. Badugu gogoia, ilusioa eta atxikimendua. Heldu zaigu, beraz, zerumuga berriak amesteko ordua. ERRIGORAgO joateko, ERRIGORAgO izateko ordua.


2013-2016


ERRIGORA GARA

Baina, aurrera begira jarri aurretik, begiratu dezagun atzera non gauden ikusteko, gauden lekura zerk ekarri gaituen ulertzeko eta aurrera egiteko zer kapital dugun jakiteko.

2012an egin zen lehenengoz udazkeneko saskien planteamendua eta, esperimentu arrakastatsu haren ondoren, jada Errigora izenarekin, **hiru ikasturte oso bete ditugu planteamendu argi batekin:** udazkenean *euskarari puzka* eta urte berrian *eskutik eskura* (otsailean olioia eta maiatzean kontserbak).

Udazkeneko kanpainaren hedapena ikaragarria izan da. Dagoeneko 700 bat lantegi, ikastetxe, euskaltegi, ikastola, denda, elkarte, udaletxe edo tabernatan garatzen da kanpaina, 200 herri inguruan. Milaka saski milaka sukaldetara, eta milaka euro Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzera.





Eskutik eskura, aldiz, halako hedapena izan gabe (70 bat herritan egiten da), **sakon errotu da eta urtetik urtera proportzio handiagoan ari da hazten**, parte hartzaile kopuruari zein eskaeren bolumenari dagokionean. Bagoaz, beraz, apurka-apurka, herriz herri bertakotik elikatze prest dauden kontsumitzaile arduratsuen komunitateak trinkotzen.

ZENBAKIEKATIK HARAGO

Lehenengo begiratuan **#EUSKARARIpuzka + #ESKUTIKeskura formula dexente errotu eta ulertu** dela esan dezakegu. Planteamendua argia eta sinplea da (udazkenean produktuak ezagutu eta euskarari ekarpen ekonomikoa egin eta urte berrian bidezko prezioan urte guztirako produktuok eskatu) eta, neurri batean, ulerterraztasunari esker lortu du halako erantzuna, baina hiru kanpainaren eskemak zailtasun batzuk ere planteatzen dizkigu:

- Batetik, **ia ikasturte osoa eramaten digu bere**

antolakuntzak eta, beraz, eskema honetatik kanpora agertzen zaizkigun erronkei erantzun ahal izatea zailtzen digu.

- Bestetik, batez ere kontserba-loteen kanpainan, **antolaketa margen gutxi uzten digu** ekoizleoi eta, oro har, Errigorari, eskaerei erantzun ahal izateko.

Ekoizpenaren alorrean topatzen dugu, hain zuzen, zailtasun gehien. Zorioneko zailtasunak, hala ere. Izan ere, Errigorak mugitzen dituen kantitateak gero eta handiagoak dira, eta **eskaerak asetu ahal izateko nekazal ekoizpenaren eta elaborazioaren antolaketa eta dinamizazioa gero eta ezinbestekoagoa da.**

Badugu, hala ere, agertzen zaizkigun zailtasunei erantzuteko giharra: herriz herri Errigoraren erronkei erantzuteko prest dagoen auzolangile sare zabala. Hiru urte hauetan **auzolana alternatibak eraikitze metodo erakargarri eta eraginkorra dela erakutsi dugu.**

Auzolanaz gain, elkarlana da Errigoraren lan-estiloaren bigarren zutabea. Euskalgintzaren, nekazaritza eta elikaduraren eta, oro har, herrigintzaren esparru zabaleko eragile desberdinekin harreman-sare sendoa eratu dugu urteotan. **Proposamen berriak elkarlanean garatzeko esperientzia badugu**, beraz.

Baina proposamen guztiak ez dira, inondik

ere, gure ekimenez jaio. Aitzitik, hiru ikasturte hauetan etengabe jaso ditu Errigorak esparru anitzetatik elkarlanerako eta proiektu berrietarako proposamenak. Esaterako, dela jantoki, dela-txiki zein kontsumo taldeen eskutik, dela herrigintzatik, **kanpainetatik kanpo produktuok merkturatzeko ahalegina eskatu zaigu** behin eta berriro, bestelako bitartekaritza formulak planteatzera animatuz.



2016 >>

ERRIGORAGO
GAITEZEN

Honaino helduta, **bidean agertutako erronkei heldu eta jauzia ematera goaz**. Txikitik handira, gure estiloan, baina ERRIGORAGO joateko eta ERRIGORAGO

izateko apustua egingo dugu. Gure izatean sakondu eta ekimena harago eramateko apustua.

ERRIGORAGO izan gaitezen, baina, ezinbesteko zaigu **gure formula egokitzea**. Hala, #EUSKARARIpuzka eta #ESKUTIKeskura kanpainez gain, momentuz #MERKATUberria deitu dugunari ere helduko diogu. Edonola ere, aurretik martxan ditugun kanpainetan moldaketak egin beharra ikusten dugu:

- **#EUSKARARIpuzka: eskaintza egokituko dugu, saski bakarraren orde, bi saskiren artean hautatzeko aukera emateko**. Baina, gainera,

hurrengo urteetarako bide, tresna, baliabide eta aliatu gehiagoren bila goaz. **Euskalgintzaren beharrianei bakarrik ez, izan beharrei ere erantzuteko ahalegina egingo dugu.**

- **#ESKUTIKeskura:** formula aldatuko dugu, eskaera erraldoiei eta bestelako erronkei behar bezala erantzun ahal izateko tartea irabazteko. Aurrerantzean, otsailean eta maiatzean kanpaina bana egin orde, kanpaina bakarra egingo dugu. Hau da, **eskaerak egiteko momentu bakarra izango da; banaketa eta ordainketak, aldiz, bi momentutan** mantentzearen alde egingo dugu. Formulazioaren egokitzapenetik aparte, #ESKUTIKeskura eskaintzen diren **produktu guztiak ekologikoan** eskatzeko aukera emateko apustua egingo dugu. Hau da, lerro oso bi (ekologikoa eta ez ekologikoa) eskainiko ditugu.
- **#MERKATUberria:** lan ildo oso bat eskatzen du kanpainaz kanpoko erronka honek. Labur esanda, **denda txikiak, jantokiak eta kontsumo elkarteak sartzeko apustua** da. Aurtengoan lehen urratsak baino ez ditugu emango, izan ere, datozen urteetarako lan eskerga dugu hemen.

Formularen egokitzapen honek hainbat erronka dakarzkigu:

- **Nafarroa hegoaldeko nekazal ekoizpena sustatu eta bideratzeko ahalegina egingo dugu:**
 - Produktu berriak ekoizteko: lekaleak, zerealak...
 - Produktu agroekologikoak ekoizteko.
- Datozen urteetan **ekoizleen familia potolotzen joan beharko dugu.** Izan ere, produktu berrien eta kantitate gehiagoren beharriaz, ekoizle komunitatea handitzeko aukera eta beharra ekarriko du.
 - Errigoraren helburuen norabidean urratsak emateko prest dauden 30 ekoizle biltzeko ahalegina egingo dugu.
 - Nekazal ekoizle eta ekoizle-elaboratzaile berriak sortzeko apustua egingo dugu.
- **Kontsumitzaile berriak erakarri** beharko ditugu: eguneroko kontsumoan bertako

produktuen aldeko apustua egiten duten 10.000 norbanakoz osatutako sarea ehunduko dugu.

- **Bestelako bitartekaritza eredu batera bidea abiatuko dugu.** Ekoizle, kontsumitzaile, eragile, elkarte edo instituzioz osatutako bazkidetza sistema formulatuko dugu. Partaide bakoitza bere behar eta nahiak betetzeko moduko eskubideen jabe egingo duena, baita gainontzekoen behar eta nahiak asetzeko besteko betebeharren erantzule ere.
- Euskararen eremuan ere ezin diogu pausuk emateari utzi:
 - **#EUSKARARipuzka sortutako diru-ekarpena 1.000.000€-a iristea** jarri dugu helburu. Baina, kopuruaz gainera, diru-ekarpenaren helburuetan sakondu nahi dugu: heldu eta haurren **euskalduntze egitasmoek aurrera egin dezaten ekonomikoki laguntzeaz gain, eremu berriak euskaldunduko dituen tresna, alianza eta baliabideak** bilatzen saiatuko gara.
 - **Ekoizleek euskararen ardatzean pausu berriak ematea** lortu behar dugu. Etiketekin eta web guneekin egin duten antzera, etorkizunerako erronka polita litzateke langileak euskalduntzen hasteko pausuk ematea.
- Auzolana lan-moldetzat hartuz, **euskararen lurralde osoan herri eta lagunen arteko zubiak eraikitzen jarraituko dugu.** Aldi berean, definitutako apustu guzti hauek aurrera eramateko eragile berrien arteko elkarlana ere bilatuko dugu.
- **Eraldaketa sozialaren ikuspegia gure jardunaren erdigunean kokatuko dugu.** Alternatiben Herrian, Karta Sozialean, ekonomia sozial eraldatzailearen olatuan... kokatuko gara.

Erronkak aise jar daitezke, baina betetzea ez da hain gauza erraza. Zalantzarik gabe, zure ekarpena ezinbestekoa izango zaigu zeregin honetan. Zatoz ERRIGORAgO! Goazen ERRIGORAgO! ERRIGORAgO gaitezen!

ERANSKINA

UDAZKENEKO KANPAINA
“Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka”




URRIAK 24 - AZAROAK 8
Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

ZURI ESKER

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Aurtengo kanpaina, urtero egin ohi dugun legez, Zazpiak bat, Sortzen, AEK eta Ikastolen Elkartearekin elkarlanean garatuko dugu, baina aurtengoak hainbat berritasun izango du, eskaintzari eta diru-ekarpenaren helburuari dagokionean batik bat. Komunikatiboki, “Zuri esker” leloa ardatz, mezu nagusia euskararen inguruan eraiki nahi dugu: zonaldeko euskalgintzako egitasmoen beharrez eta euskarak behar lukeenaz arituko gara, eta auzolanak beharrok asetzeko zereginean duen ezinbesteko betekizunaz. Hau da, *zuri esker* egingo dugu jauzi euskararen beharrezatik izan beharretara, jauzirik izango bada.

ESKAINNTZA

Udazkeneko kanpaina Nafarroa hegoaldeko baratzeke 13 bat produktuz osatutako saskia eskaini izan dugu, 50 euroren truke, jasotakoaren %25 zonaldeko euskalgintzara bideratzeko.

Aurtengoan, ordea, filosofia bere horretan mantendu

dugun arren, eskaintza erakargarriago egin nahi izan dugu, eta urterokoaren estiloa mantentzen duen saski beltzaz gainera, **bigarren saski bat ere (saski zuria) eman nahi izan dugu aukeran.**

Sei produktu konpartitzen dituzte saski biek, baina gainontzeko zazpiak desberdinak dira, eta **produktu berriak** saski zurian pilatzen saiatu gara. Berritasunen artean, batetik, egunerokoan sarri erabili arren, hemengoak bertakoak baditugula gutxik dakiten produktuak (arroza edo ozpina, esaterako) ditugu eta, bestetik, bertako lehengaiekin prestatutakoak (pasta, pastak, teilak...). Produktu berri hauek saskia aberasteaz gainera, aurrerago jantokietan, denda txikietan edo udaberriko Eskutik Eskura kanpainen lekua izango dute.

txokolatzeko gutuziak
pasta ekologikoa
arroza
polboroiak edo teilak
madaria almibarrean
eskalibada
pikillo-saltsa
zainzuri estra lodiak
orburu-bihotzak
pikillo-piper osoak
ozpin ekologikoa
melokotoia almibarrean
ardo ekologikoa

50€

SASKI ZURIA



BELTZA EDO ZURIA?



SASKI BELTZA

50€

oliba-olio birjina
mahats-zukua
potxak
melokotoi-marmelada
arbendolak
borraja ekologikoa
pikillo piper mamia
zainzuri estra lodiak
orburu-bihotzak
pikillo-piper osoak
ozpin ekologikoa
melokotoia almibarrean
ardo ekologikoa

EKOIZLEAK

2012ko lehen esperientzia bi ekoizlerekin abiatu genuen, 2013ko kanpainan 5 ekoizlek hartu zuen parte, 2014an 10 izan ziren eta iazko kanpainarako 15 ekoizleko familia osatzea lortu genuen. Beraz, honaino helduta, 13 produktuz osatutako saski bakarrarekin zaila litzateke ekoizle berriak Errigorara hurbiltzea.

Hala ere, ekoizleen familia gero eta handiagoa izatea inoiz baino beharrezkoago zaigu, gora doazen eskaerei erantzuteko gaitasuna izateaz gain, aurten ERRIGORAgO jauzi egin nahi dugulako.

Bada, bi saskien planteamenduari esker, **dagoeneko 20 etxe ditugu egitasmoaren baitan**: Ablitasgo kooperatiba, Alcaravan (Argedas), Almanaque (Andosilla), Azpea (Irunberri), El Agricultor (Lerin), Bardea (San Isidro del Pinar), La Casa del aceite (Cascante), La Churta (Allo), Ebron, Ekolo (Arroitz), El Escolar (San Adrian), Iturri (Arroitz), Lezaun (Lakar), Maria Jesus (Ablitas), Martinelli (Berriain), Mendiko (Oibar), El Molinero (Arroitz), Monasterio de Cascante, Urrutia (Uxue) eta Pedro Luis (Lodosa).

DIRU-EKARPENA

Orain arte hamaika aldiz esaten saiatu garen arren, garrantzitsua da **euskalgintzari diru-ekarpena egiteko momentua hau dela** bergogoratzea. Bistan da #ESKUTIKeskura ere egiten diogula ekarpena euskarari, eguneroko elikagaiak euskaraz kontsumitzeaz gain, ekoizleek pausu berriak ematea errazten baitu. Baina ekarpen ekonomikoa kanpaina honetan baino ez dugu egiten, eta ez edonolokoa gainera: ia milioi erdikoa da orain arte egin dugun ekarpen metatua.

Indarra egin beharko dugu, beraz, balizko kontsumitzaileak diru-ekarpenaren garrantzia jabetzeko. Izan ere, azken urteetan instituzio mailan aldaketak emanagatik ere, oraindik orain **Nafarroa hegoaldeko euskalgintzako proiektuek aurrera egiteko ezinbestekoa dute elkartasunaren bultzada**.

Hala ere, ezin dugu milaka lagunen borondateak sortutako diru-ekarpena haur eta helduak euskalduntzeko egitasmoen berehalako behar

larrienak estaltzera mugatu. Eta hona hemen aurtengo kanpainan plazaratuko dugun proposamen berria: **Nafarroa hegoaldeko euskararen normalizazioan ekarpen estrategikoa egin nahi dugu**. Hurrengo urteetako kanpainetatik, bide propioa egingo duten ekimenak eta tresnak sortuko bagenitu gainera? Ikuspegi hori emango diogu, hain zuzen, hurrengo urteetako #EUSKARARIpuzka eta ekarpen ekonomikoa.

Nafarroa hegoaldeko euskaltzale eta jendeak esango dugu zer, nola, non. Bere garaian lehenengo ikastola, gaudeskolak eta abar erne ziren gisara.

Euskalgintzaren **beharrizanetatik izan beharretara** jauzi egiteaz ari gara:

- Euskaldunak sortzeaz batera, gero **euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko eremuak behar ditugu**.
- **Euskarak eta eta euskal kulturak posizionamendu berria behar dute Nafarroa hegoaldean**. Euskara plazaratzeko eta euskararekiko jarrera baikorra areagotzeko bitarteko eta ekimenak behar ditugu.
- Euskalgintzako proiektu desberdinak eta **euskaltzaleak oro har batera aritzeko eta harremanak sendotzeko beharra dugu**.

Idea hauek ordenatu eta fintzen hasiko gara.

Lehentasunak bereizten, bideragarritasuna aztertzen, babes eta atxikimenduak irabazten... Nafarroa hegoaldetik Nafarroa hegoalderako.

Euskalgintzak ez ditu erronka makalak Nafarroa

hegoaldean, eta erronka hauei erantzuteko berariazko garrantzia du auzolanak. Izan ere, herriak herriari lagundu ezean, ez ditu inork babak eltzetik aterako. Euskararen korapiloak zuri esker askatuko dira, ala ez dira askatuko.

EGUTEGIA

- Urriaren zehar kanpainarako dena prest.
- Urriaren 23ean kanpaina hasierako auzolana Arrasaten.
- Azaroaren 8a eskaerak jasotzeko azken eguna.
- Azaroaren 18-20ko asteburuan auzolana Ablitasen.
- Azaroaren 21 eta 27a bitartean saskien banaketa.
- Azaroaren 28a eta abenduaren 4a bitartean ordainketak.

URRIA						
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
AZAROA						
31	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
ABENDUA						
28	29	30	1	2	3	4
KANPAINA		BANAKETA			ORDAINKETA	